

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**

AGINDUA, 2008ko ekainaren 10ekoa, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarena, patentek eskatzeko laguntzak iragartzen dituena. 17401

Iragarkiak**Obra, Zerbitzu eta Horniduren
Enkanteak eta Lehiaketak****OSASUN SAILA**

ESLEIPENA, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzu-arena, Zamudio Ospitaleko Errehabilitazio Eraikinean igogailu bat birmoldatzeari buruzko espedientearena. 17411

Beste Iragarki Ofizial Batzuk**INDUSTRIA, MERKATARITZA
ETA TURISMO SAILA**

IRAGARKIA, Menke Informática, S.L.ri 2008ko apirilaren 21eko Ebazpena jakinarazteko dena. Ebazpen horren bitartez, Intek Programaren penztutan, 2003ko ekitaldian emandako laguntzei dagokienez, ez-betetzeari buruzko espedientea irekitzen da. 17412

Xedapen Orokorrak**JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA**

4014

4/2008 LEGEA, ekainaren 19koa, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa egitekoa.

Eusko Legebiltzarrak ekainaren 19ko 4/2008 Legea, Terrorismoaren Biktimei Aitorpena eta Erreparazioa Egitekoa, onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei.

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

ORDEN de 10 de junio de 2008, del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, por la que se convocan ayudas para la solicitud de patentes. 17401

Anuncios**Subastas y Concursos de Obras,
Servicios y Suministros****DEPARTAMENTO DE SANIDAD**

ADJUDICACIÓN de Osakidetza-Servicio vasco de salud, del expediente relativo a remodelación del ascensor en el edificio de rehabilitación del Hospital Zamudio. 17411

Otros Anuncios Oficiales**DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA,
COMERCIO Y TURISMO**

ANUNCIO por el que se notifica a Menke Informática, S.L., Resolución de 21 de abril de 2008, por la que se incoa el expediente de incumplimiento en relación con la ayuda concedida, en el ejercicio 2003, en aplicación del programa Intek. 17412

Disposiciones Generales**PRESIDENCIA DEL GOBIERNO**

4014

LEY 4/2008, de 19 de junio, de Reconocimiento y Reparación a las Víctimas del Terrorismo.

Se hace saber a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente ley:

Ley 4/2008, de 19 de junio, de Reconocimiento y Reparación a las Víctimas del Terrorismo

ZIOEN AZALPENA

- 1 -

Gure artean gero eta begi-bistakoagoa da terrorismoa gure gizarteak nozitzen eta jasaten duen gaitzik handienetarikotzat jotzen dela. Seguru asko, oraindik ez gara erabat jabetzen auzi horrek euskal herritarron bilakaeran, kolektibitate gisa, sortu duen eta sortzen duen min sakonaz. Agian, ikuspegi historiko zabalago batetik, etorkizunean izango dugu baloratzea norainoko eragin negatiboa izan duen eta duen gure garapenean batez ere ETaren biolentzia terroristak, baina baita gaur egun zorionez desagertuta dauden GALenak eta eskuin muturreko taldeenak ere. Gizarte-harremanen, gure ekonomiaren, gure kultura- eta hizkuntza-aurrerapenaren garapenaz ari gara; azken finean, gure elkarbizitzaren garapenaz.

Ezagun dugu, hori bai, tragedia horren gertuko eta zuzeneko eragina, hots: erailketek, mehatxuek, bahiketek, estortsioek eta xantaiek sortutako min eta sufrimendu itzela. Terrorismoaren biktimak eta haien familiakoak eta hurbilekoak ondorio horren adierazpen pertsonala eta gertukoa dira. Haiek osatzen dute-eta, tamalez, larrutik eta gogotik terrorearen eta fanatismoaren zerga ordaindu duen gizataldea, gure gizartean berariaz eta era kalkulatu batez aukeratua izan dena.

ETaren ekintzak ez dira ustekabeen gertatzen, eta haren helburuak eta estrategiak ez dira zoriaren edo bat-batekotasunaren emaitza. Beren proiektu totalitario eta baztertzaila bide baketsuetatik inposatzerik ez dutenez, biolentzia terroristaren bitartez inposatu nahi dute, eta horretarako, pertsona errugabeen odola erabiltzen dute, biktimena, hain zuzen ere, herritarrek izuak hartuta amore eman dezaten.

Zorionez, azken urteetan herritarrek erreakzionatu egiten dute eta erreakzio horrek isla izan du poliki-poliki instituzioen artean ere; horren eraginez laguntza-neurriak onetsi dira eta biktimei aitorten eta omenaldi publikoa egin zaie, eta etorkizunari begira, oinarritzko testu batzuk ere onetsi dira, hala nola Eusko Legebiltzarrak 2003ko ekainean aho batez onetsitako legez besteko proposamena, edo 2005eko otsailean onetsi zuena, non Jaurlaritzari eskatzen baitzaio lege-proiektu hau aurkezteko.

Euskadin, hartara, bai Jaurlaritzak bai Legebiltzarrak irmotasun eta seriotasun osoz adierazi dute gure elkarbizitzaren etorkizuna biktimekiko memorian oinarrituta eraiki beharko dela, halabeharrez. Gehien sufritu dutenak oroitu nahi ditugu, historia, gure historia, ez dadin errepika. Terrorismoaren biktimei aitorpenera egitea, horrenbestez, justizia-ekintza bat da, baina baita gizarte baten egiazko adierazpena ere, gure gizarteak ez du-eta berriz bizi nahi haiek nozitutako bidegabeko sufrimendua.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

- 1 -

Cada vez es más evidente entre nosotros la consideración del terrorismo como una de las mayores lacras que sufre y soporta nuestra sociedad. A buen seguro no somos aún plenamente conscientes del profundo daño que dicho fenómeno ha generado y genera en el devenir de la ciudadanía vasca como colectividad. Una perspectiva histórica más amplia tal vez nos permita en un futuro valorar, en toda su extensión y con todo su alcance, la negativa repercusión que la violencia terrorista de ETA fundamentalmente, aunque también la del GAL y grupos de extrema derecha, estos últimos afortunadamente desaparecidos hoy en día, ha tenido y tiene en el desarrollo de nuestras relaciones sociales, de nuestra economía, de nuestro progreso cultural y lingüístico; de nuestra convivencia, en definitiva.

Conocemos, eso sí, un alcance inmediato y directo de esta tragedia: el inmenso dolor y sufrimiento provocado por los asesinatos, las amenazas, los secuestros, las extorsiones y los chantajes. Las víctimas del terrorismo y sus familiares y allegados son la expresión personal y cercana de esta consecuencia. Constituyen, lamentablemente, el grupo de nuestra sociedad, específica y calculadamente elegido, que ha pagado en sus carnes y en sus almas el tributo del terror y el fanatismo.

Las acciones de ETA no son casuales, ni sus objetivos y estrategias son fruto del azar o la improvisación. Ante la imposibilidad de establecer por vías pacíficas su proyecto totalitario y excluyente, pretenden imponerlo a través del ejercicio de la violencia terrorista, utilizando la sangre de personas inocentes, las víctimas, para aterrorizar al conjunto de la ciudadanía buscando su desistimiento.

Afortunadamente, en los últimos años se ha producido una reacción ciudadana que ha ido teniendo un paulatino reflejo a nivel institucional y que ha dado lugar tanto a la aprobación de medidas asistenciales como al reconocimiento y homenaje público; también a la aprobación de textos base para encarar el futuro, como la proposición no de ley aprobada por unanimidad en el Parlamento Vasco en junio de 2003, o la aprobada en febrero de 2005, en la que se mandata al Gobierno a presentar este proyecto de ley.

Así, en Euskadi, tanto el Gobierno como el Parlamento han afirmado con rotundidad y solemnidad que el futuro de nuestra convivencia deberá ser construido ineludiblemente sobre la memoria a las víctimas. Queremos recordar a quienes más han sufrido para que la historia, nuestra historia, no se repita. El reconocimiento a las víctimas del terrorismo es, en consecuencia, no solo un acto de justicia sino la expresión sincera de una sociedad que no quiere revivir nunca más el sufrimiento injusto que aquellas han padecido.

Euskal gizarteak printzipio etiko funtsezkoenak aldarrikatu nahi ditu oinarrizko irizpide gisa elkarbizitza arautzeko, eta, hortaz ezin saihestuzko eta ezin atzeratuzkoa du terrorismoak kaltetutako pertsonen elkartasuna agertzea; hartara, botere publikoei dagokie biktimei zor zaien aitortzea, erreparazioa eta justizia neurri zehatzen bidez ematea, orain arte nozitutako irainak modu koherente eta eraginkorrean deuseztatuz. Neurri horien helburua da, orobat, terrorismoaren biktimek urte askoan sentitu eta pairatu dituzten ahanzturak, ikusgarritasun-eza eta ulermen falta ahal den neurrian konpentsatzea, biktimagileak jendaurrean goresteko ekitaldiek sortzen dituzten egoerak ahaztu gabe.

Ildo horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak aspaldi erreakzionatu zuen, terrorismoaren ondorioak ahal den heinean leuntzeko aurreneko neurriak hartuz. Hala, terrorismoaren biktimezako laguntzen programa baten aurreneko arautzea abuztuaren 4ko 221/1988 Dekretuan jaso zen. Arau horiek 1991n, 1993an eta 1995ean aldatu ziren. Ondoren, 2000n, 107/2000 Dekretua, ekainaren 13koa, jarri zen horien ordean, eta, 2002an, azken dekretu hori egun indarrean dagoen dekretuak ordezkatu zuen (214/2002 Dekretua, irailaren 24koa, abenduaren 30eko 313/2002 Dekretuak aldatua). Laguntzen araudi berri horrek alderdi berriak sartu zituen babesaren esparruan, eta nabarmen areagotu zituen babes-mailak. Ildo horretan, enplegu publikoaren zein pribatuaren eremuan laneratzeko laguntza-ildoak ezarri zituen horren premia duten biktimez; etxebizitzaren arloan biktimek dituzten behar bereziei erantzuteko bideak antolatu zituen; hezkuntzaren arloko laguntzak handitu egin ziren eta biktimari eragindako kalte ekonomikoa funtsean ordaintzeko kalte-ordainen zenbatekoak ere bai.

Programa hori zenbait urtetan aplikatu ondoren nahikoa esperientzia positibotzat jotzen bazen ere, berrikustea komeni zela ikusi zen, betiere hobetze aldera eta atzemandako desorekak zuzentze aldera. Gainera, gizarteak berak gero eta kontzientzia handiagoa hartu du terrorismoaren biktimekiko elkartasuna zehazteko beharraz —euren eguneroko bizimoduaren baldintzak hobetzeko neurriak hartuz—, eta horrek komenigarri egiten zuen programa berrikustea, irizpide zabala eta zehatza baliatuta.

Iritzi-egoera hori islatuz, Legebiltzarrak aipatutako akordioak onartu zituen, eta Eusko Jaurlaritzak legezko testu batera eramateko konpromisoa hartu zuen; hortaz, testu horretan jaso zuen Eusko Jaurlaritzak erronka hori eta gauzatzeko lana ere bere egin zuen. Horrela, lege honek terrorismoaren biktimekin hartutako konpromisoak ez ezik, euskal herritarrekin hartutakoak ere betetzen ditu.

Hasitako bidean beste urrats bat egin da lege honekin. Administrazioak emandako prestazioak hobetzeaz gain, lege hau, adierazi den bezala, bihotzetiko omenaldi baten adierazpen sakona eta benetakoa da, hain zuzen ere

Para una sociedad como la vasca, que quiere reivindicar los más elementales principios éticos como criterios básicos que regulen su convivencia, la solidaridad con los afectados por el terrorismo se erige en una obligación inexcusable e inaplazable que los poderes públicos han de traducir en medidas concretas que expresen el sentimiento de reconocimiento, reparación y justicia debido a las víctimas, eliminando de forma coherente y efectiva los agravios sufridos. Estas medidas tratan igualmente de compensar, en la medida de lo posible, los olvidos, la invisibilidad y la incomprensión que las víctimas del terrorismo han sentido y sufrido durante muchos años, sin olvidar las situaciones generadas por actos como los de exaltación pública de aquellos que fueron sus victimarios.

En este sentido, la Administración autonómica vasca ya reaccionó hace años adoptando las primeras medidas conducentes a paliar, en la medida de lo posible, los efectos del terrorismo. Así, la primera regulación de un programa de ayudas a las víctimas del terrorismo se recogió en el Decreto 221/1988, de 4 de agosto. Esta normativa fue modificada en 1991, 1993 y 1995; en 2000 se sustituyó por el Decreto 107/2000, de 13 de junio, y en 2002, este último decreto fue reemplazado por el actualmente vigente Decreto 214/2002, de 24 de septiembre (modificado por el Decreto 313/2002, de 30 de diciembre). Esta última normativa de ayudas introdujo nuevos aspectos de tutela y aumentó significativamente los niveles de protección. En este sentido, introdujo líneas de ayuda tendentes a una efectiva inserción laboral de las víctimas que lo precisen; se instrumentaron vías de satisfacción de las necesidades especiales de las víctimas en materia de vivienda; se ampliaron las ayudas en el ámbito educativo y se incrementaron las cuantías indemnizatorias para garantizar una sustancial reparación del daño económico infligido a la víctima.

La experiencia de varios años en la aplicación de este programa, pese a considerarse razonablemente satisfactoria, aconsejaba una revisión que la perfeccionara y corrigiera desajustes detectados. Además, el creciente grado de concienciación de la propia sociedad respecto a la necesidad de concretar la solidaridad hacia las víctimas del terrorismo con la adopción de medidas que contribuyan a mejorar sus condiciones de vida cotidiana, hacían aconsejable la revisión del programa con criterio extensivo y exhaustivo.

Este estado de opinión quedó reflejado en los acuerdos parlamentarios ya mencionados anteriormente y en el compromiso de su traslación a un texto legal por el Gobierno Vasco, que recogía este reto y asumía la tarea de su materialización. Así, esta ley no supone únicamente cumplimiento de los compromisos adquiridos ante las víctimas del terrorismo sino también ante la propia ciudadanía vasca.

Esta ley supone un paso más en ese camino emprendido. Se trata de una ley que, al tiempo que perfecciona las prestaciones concedidas por la Administración, supone, como ha quedado manifestado, una expresión

terrorismoaren biktimek pairatu duten sufrimenduagatik eta, justizia beren kabuz egitetik urruti, eman duten erantzunarengatik merezi dutenen omenaldiarena.

Legeak alde bi ditu. Alde batetik, zati batean kontu materialak eta laguntzak baino ez ditu aipatzen, eta zati horretan sistematizatutako neurrien katalogoa zehazten da, neurriok terrorismoaren biktimen eguneroko bizi-tzarekin zerikusia duten arazo ugariri erantzutea ahalbidetuko dute-eta. Baina, beste alde batetik, badago beste alde bat, berriagoa dena, biktima hauen eskubideak ikuspuntu etiko eta politiko batetik osatzen dituzten printzipio orokorrak biltzen dituena.

Legearen II. tituluari jasotzen den bigarren alde hori garatze aldera, nazioarteko agiri batzuk hartu dira inspirazio-iturritzat, Nazio Batuek, Europako Kontseiluak edo Europar Batasunak giza eskubideen urraketa larri eta sistematikoen aurrean biktimak babesteari buruz emandakoak.

Praktikak eta jurisprudenziak, nazioartekoak zein konparatuak, argiro demostratu dute Estatutik at dardarduten talde pribatuek eragindako giza eskubideen urraketa larriak egin daitezkeela, eta, era berean, batzuetan demostratu den bezala, talde pribatu horietariko batzuek Estatuaren beraren edo Estatuako sektore batzuen baiespenaz jardun dezaketela.

Euskal Herrian, zenbait hamarkadatan garatutako biolentzia terrorista daukagu aurrean; kasik mila lagun erailda, eta funtsezko eskubideak etengabe urratuta, bizitza, osotasun fisiko edo psikikoa, adierazteko askatasuna edo norberaren segurtasuna, beste batzuen artean. Horrenbestez, badugu giza eskubideen urratze larri eta sistematikoez hitz egitea, dela ETaren terrorismoak, dela iraganean eskuin muturreko taldeek edo GALek berak egindakoak.

Alde horretatik, kontua ez da Barne Zuzenbidera nazioarteko arauen transposizioa egitea, baizik eta onartzea legezko testuan, batez ere aipatutako II. tituluari, jasotako xedapenetan interpretazio eta doktrina-lotura dagoela.

Inspirazio horren ondorioetariko bat argi eta garbi islatzen da biktimen eskubideen definizioan. Ez da kontu hutsala lege honek terrorismoaren biktimak eskubideen subjektutzat hartzea, nahiz eta eskubide horien edukia funtsean programatikoa izan. Eta horrelaxe enuntziatzen da berariaz, hain zuzen, aipatutako II. titulua.

Gaiari buruzko nazioarteko tresnen erreferentziak hartuta, adierazten dugu giza eskubideen urraketa larri eta sistematikoen ondorioz sortzen diren biktimen eskubideek hiru oinarriko euskarri dituztela, hau da: egia ezagutzeko eskubidea, justiziarako eskubidea eta errepaziorako eskubidea. Gure kasuan ere oinarri-kotzat jotzen dugu memoriarako eskubidea gehitzea, biktimen esanahi politikoari berebiziko garrantzia ema-

profunda y sincera del sentido homenaje que merece el sufrimiento padecido por las víctimas del terrorismo y sus respuestas alejadas siempre de la tentación de tomarse la justicia por su mano.

La ley tiene una doble dimensión. Por un lado, una parte de la misma hace referencia a las cuestiones estrictamente materiales o asistenciales y es donde se despliega el catálogo de medidas sistematizadas que han de permitir dar respuesta a numerosos problemas relacionados con la vida cotidiana de las víctimas del terrorismo. Pero, por otro, y como aspecto más novedoso, se incorpora una parte que trata de compendiar los principios generales que informan el conjunto de derechos de estas víctimas desde una perspectiva ética y política.

Para el desarrollo de esta segunda dimensión de la ley, plasmada en su título II, se han tomado como fuente de inspiración documentos internacionales, de Naciones Unidas, el Consejo de Europa o la Unión Europea, sobre la protección de las víctimas ante violaciones graves y sistemáticas de derechos humanos.

La práctica y la jurisprudencia internacional y comparada han demostrado claramente que puede haber violaciones graves de los derechos humanos perpetradas por grupos privados que actúan al margen del Estado, al igual que, en ocasiones, se ha demostrado que algunos de estos grupos privados pueden actuar con el asentimiento del propio Estado o de sectores del mismo.

En el caso vasco, estamos ante varias décadas de violencia terrorista, con casi un millar de personas asesinadas; violaciones constantes de derechos esenciales como la vida, la integridad física o psíquica, la libertad de expresión o la seguridad personal. Podemos hablar, por tanto, de la existencia de violaciones graves y sistemáticas de los derechos humanos, tanto las cometidas por el terrorismo de ETA como las protagonizadas en el pasado por los grupos de extrema derecha y el propio GAL.

En este sentido, no se trata de llevar a cabo una transposición al Derecho interno de normas de carácter internacional, sino tan solo de reconocer la conexión interpretativa y doctrinal de las disposiciones recogidas fundamentalmente en el mencionado título II del texto legal.

Una de las consecuencias claras y evidentes de esta inspiración se refleja en la definición de derechos de las víctimas. No es baladí que la presente ley trate a las víctimas del terrorismo como sujetos de derechos, aunque el contenido de estos sea esencialmente programático. Y así se enuncia precisamente el mencionado título II.

Acogiendo las referencias de los instrumentos internacionales en la materia, afirmamos que los derechos de las víctimas que se originan ante violaciones graves y sistemáticas de derechos humanos reposan sobre tres pilares básicos, a saber: derecho a la verdad, derecho a la justicia y derecho a la reparación. En nuestro caso consideramos igualmente básico incorporar el derecho a la memoria, confirmando singular relevancia a la sig-

tearekin batera. Horiei duintasuna erantsi behar zaie, eta horrekin batera, bakerako, askatasunerako eta elkarbizitzarako eskubideak sartu behar dira terrorismoaren biktimen eskubideen erreferentziazko beste euskarri bat diren aldetik.

Gehienbat izaera programatikoa duten eskubide hauek jasotzailearen arabera antolatu dira legean, eta eskubide bakoitzarekin batera jarduera jakin batzuk adierazi dira kasuan kasuko eskubidea zehazten dutenak. Lehenengoz, biktimen eskubideak: justizia, duintasuna, aitortpena eta erreparazioa. Bigarrenez, biktimek eta gizarteak partekatzen dituzten eskubideak: egia eta memoria eta haien esanahi politikoa. Eta, hirugarrenez, euskal herritar guztien eskubideak: bakea, askatasuna eta elkarbizitza.

Laburbilduz, abiapuntua egia eta memoria dira, eta hortik abiatuta finkatzea zer gertatu den eta zer gertatzen ari den, eta zergatik gertatu den eta zergatik oraindik ere gertatzen ari den. Eta, gertatu denaren ezagutzatik eta esanahitik, aitortzea biktimek jasan dituzten era askotako sufrimenduak, baita era askotako beren beharriak ere, eta erreparazio eta laguntza integraleko sistema bat ezartzea sufrimendu eta beharri horiek ahal den neurrian arindu ahal izateko, nola alderdi materialean hala alderdi moralean.

Horri dagokionez, beharrezkoa da nabarmentzea Legearen alde bikoitzaren bidez era osatuago eta sistematikoa batez jasotzen dela 2005eko otsailean Eusko Legebiltzarrak onartutako irizpenean jasotako akordioetarikoa bat. Zehazki 4. puntuaren b) idatz-zatia da honako konpromiso hau hartzen zuena: «Proposatzea Eusko Legebiltzarrak idatzi, onetsi eta zabal dezala terrorismoaren biktimen eskubideen gaineko adierazpen politikoa bat, gai honi buruzko nazioarteko adierazpenak eta legebiltzar-lantaldean jasotako ekarpenak oinarritzat hartuta».

Legearen edukian arreta jarriz, legea osatzen duten zatiak azter ditzakegu.

- 2 -

Ohikoa denez, I. tituluak legearen xedeari buruzko eta aplikazio-eremuari buruzko zenbait xedapen orokor jasotzen du.

Legearen aplikazio-eremua, berriz, 2. artikuluko 1. paragrafoan ezartzen da; berriaz uko egiten zaio terrorismo kontzeptua edo terrorismoaren biktima kontzeptua definitzeari, eta definizio praktikoa baten alde egiten du, lege honetan ezarritakoa aplikatu behar zaien pertsonena.

Legegintza-aukera horren bidez bilatzen da legearen eremuan al baita eta ekintza terroristen biktima gehien hartzea, albo batera utzita ekintzak terroristatzat jotzen diren taldeko kideek edo beste batzuek egin dituzten. Jakina, jurisprudentiako doktrina sendoa dago irizpide horren alde.

nificación política de las víctimas. A ellos se añade la dignidad, agregando el derecho a la paz, la libertad y la convivencia como otro de los pilares referenciales de los derechos de las víctimas del terrorismo, estos compartidos con toda la ciudadanía.

Todos estos derechos de naturaleza fundamentalmente programática son ordenados por la ley en función de su destinatario, añadiendo en cada uno de ellos una serie de actuaciones que concreten el derecho enunciado. En primer lugar, los derechos de las víctimas: la justicia, la dignidad, el reconocimiento y la reparación. En segundo lugar, los derechos compartidos por las víctimas y el conjunto de la sociedad: la verdad y la memoria y su significación política. Y, en tercer lugar, los derechos del conjunto de la ciudadanía vasca: la paz, la libertad y la convivencia.

En síntesis, se trata de partir de la verdad y la memoria, estableciendo qué ha pasado y pasa, y por qué ha pasado y sigue pasando. Y, desde ese conocimiento y significado de lo ocurrido, reconocer los sufrimientos de diversa índole que han sufrido las víctimas, así como sus necesidades también diversas, para instaurar un sistema de reparación y asistencia integral que trate de paliarlos en la medida de lo posible, tanto en el plano material como moral.

Es preciso destacar en este punto que con esta doble dimensión recogida en la ley viene a cumplirse de una manera más completa y sistemática uno de los acuerdos incluidos en el dictamen aprobado por el Parlamento Vasco en febrero de 2005. Se trata en particular del apartado b) de su punto 4, que recogía el compromiso de «redacción, aprobación y difusión de una declaración política de derechos de las víctimas del terrorismo, sobre la base de declaraciones internacionales en esta materia y de las aportaciones recogidas por la ponencia parlamentaria».

Centrándonos en el contenido de la ley, podemos analizar los distintos apartados que la componen.

- 2 -

El título I recoge, como es habitual, unas disposiciones de carácter general relativas al objeto de la norma legal y su ámbito de aplicación.

El artículo 2 en su apartado 1 establece el ámbito de aplicación de la ley con una renuncia expresa a definir el concepto de terrorismo o de víctima del terrorismo, optando por una definición más práctica de «personas a las que será de aplicación lo establecido en la presente ley».

Esta opción legislativa pretende poder acoger en el ámbito de la ley el mayor número de supuestos posibles de víctimas de acciones terroristas, sean o no cometidas por personas integradas en grupos así calificados. Obviamente, existe una sólida doctrina jurisprudencial en apoyo de este criterio.

Terrorismoaren kontzeptua, benetan, ulertzeko gaitza da; dena den, aztertu behar dugu kontzeptu horren bilakaera biktimei laguntzeko zigor- eta administrazio-arloetako legeei dagokienez.

Hasiera batean, terrorismoaren delituak mugatzean, honako elementu hauek hartzen ziren kontuan:

a) faktikoak: legez kontrako egintza jakin batzuek izan behar zuten (giza hilketa, lesioak eta abar), eta elkartzen ziren gainerako zirkunstantziak kualifikatu behar zuten;

b) baliabideetakoak: terrorismo-delituak baliabide jakin batzuk erabiltzearekin lotzen ziren;

c) egitura eta antolaketari buruzkoak: banda armatuak, organizazio edo talde terroristak, eta

d) teleologikoak: konstituzio-ordena iraultzeko helburua edo bake publikoa larriki aldatzeko berariazko helburua.

Konstituzio Auzitegiak «banda armatuak» kontzeptuaren interpretazio murrizta egin zuen, betiere, garrantziari eta hedadurari dagokionez, «elementu terroristak» kontzeptuarekin loturik. Hala, ulertzen zuen ez zituela aipatzen soilik taldearen iraunkortasuna eta egonkortasuna eta armadun izate hori (defentsa- edo gerra-armak dituen, baita substantzia edo aparatu leherkorrak ere), baizik eta, era berean, aipatzen zuela gizartean izua eta kolektibitatean arbuioa sortzeko behar besteko garrantzia izatea, herritarren segurtasunean eragin handia izateagatik, eta, azkenik, gizarte demokratiko osoari eraso izateagatik. Terrorismo-jardueraren bereizgarri izango litzateke gizartean alarma-egoera edo segurtasunik eza zabaltzeko asmoa, edo, nolabehar ere, ondorio hori sortzea, delituzko jarduera hori sistematikoki, behin eta berriro, eta maiz noren kontra bereizi gabe, betetzearen ondorioz.

Zigor-arloko legeen oihartzunez, garai hartan terrorismoaren biktimek Zigor Kodean terrorismo-delitutzat jotako biktimek zirela pentsatzen zen. Horren ondorioz, zenbait kasu laguntza-erregimenetik kanpo uztera behartzen zuten, baldin eta zigor-ikerketak ez bazuen emaitza eztabaida ezinik lortzen eragindako kaltea helburu terroristak dituen banda armatu batek eraginda zen ala ez ondorioztatzeko.

Administrazio-laguntzak zigor-arloko kondenak baino lehenago ematen zirenez, laguntzen arauetan kalteen izaera terroristari buruzko polizia-ziurtagiri bat exijitzen zen, eta hori presuntzio hutsetan oinarritzen zen maiz. Nolanahi ere, administrazio-ondorioetarako ez dago oso argi horrelako zerbait ziurtatzerik dagoen. Ziurtagiria emateak berekin dakar fede publikoa edo horretarako atribuzioa duen norbaitek izatezko gertaera bat idatziz jasoaraztea. Kalifikazio juridiko bati buruzko iritzi bat ematea (terrorismo-delitua dagoen ala ez) ez dagokio zentzu hertsian ziurtagiria emateko jarduerari.

Laurogeita hamarreko urteetan helburu politikoa zuten sabotajeen, desordena publikoen edo bandalismoaren ondorioz sortutako kalte materialak areagotu ziren, eta horrek ekarri zuen, alde batetik, terrorismo-

El concepto de terrorismo es, efectivamente, de difícil comprensión; no obstante, podemos analizar la evolución de dicho concepto con relación a la legislación penal y administrativa de ayudas a las víctimas.

En un primer momento, la delimitación de los delitos de terrorismo atendía a los siguientes elementos:

a) fáctico: debía tratarse de determinados tipos de ilícitos (homicidio, lesiones, etcétera), cualificados por el resto de las circunstancias concurrentes;

b) medial: los delitos de terrorismo se vinculaban al empleo de determinados medios;

c) estructural o de organización: bandas armadas, organizaciones o grupos terroristas, y

d) teleológico: finalidad específica de subvertir el orden constitucional o alterar gravemente la paz pública.

El Tribunal Constitucional vino a interpretar restrictivamente el concepto de «bandas armadas» en conexión, en su trascendencia y alcance, con el de «elementos terroristas», considerando que hacía referencia no sólo a la nota de permanencia y estabilidad del grupo, y a su carácter armado (con armas de defensa o de guerra, y también con sustancias o aparatos explosivos), sino también a su entidad suficiente para producir un terror en la sociedad y un rechazo de la colectividad, por su gran incidencia en la seguridad ciudadana, que supusiera así también un ataque al conjunto de la sociedad democrática. Sería característico de la actividad terrorista el propósito, o en todo caso el efecto, de difundir una situación de alarma o de inseguridad social como consecuencia del carácter sistemático, reiterado, y muy frecuentemente indiscriminado, de esta actividad delictiva.

El eco de la legislación penal hacía que por aquellas fechas se identificase a las víctimas del terrorismo con las víctimas de los delitos de terrorismo configurados como tales en el Código Penal. Lo cual obligaba a dejar fuera del régimen de ayudas casos en los que la investigación penal no era concluyente sobre si la autoría del hecho dañoso correspondía a una banda armada organizada con fines terroristas.

Dado que las ayudas administrativas se anticipaban a las condenas penales, la normativa de ayudas exigía un certificado policial sobre el carácter terrorista de los daños, lo cual en muchos casos se sustentaba en meras presunciones. En todo caso, resulta administrativamente poco claro que se puede certificar algo semejante. La acción de certificación implica hacer constar por escrito una realidad de hecho por quien tenga fe pública o atribución para ello. Emitir un juicio sobre una calificación jurídica (si existe un delito de terrorismo) no es propio de la acción certificadora en sentido estricto.

El incremento en la producción de daños materiales fruto de sabotajes, desordenes públicos o vandalismo con finalidad política provocó en los años noventa, por un lado, la progresiva extensión de la cobertura de los

aren biktimei laguntzeko programak gero eta gehiago zabaltzea kasu horietara, nahiz eta kalteen atzean banda armatu terrorista bat zegoen jakin ez.

Bestalde, 1995eko Zigor Kodeak (2000ko erreformak indartua) bere 577. artikulua berritasuna dakar, terrorismoaren delituei buruzko kapituluaren antolatua ez dagoen biolentzia politikoen kasuak, doktrinaren «banakako terrorismoa» deitutakoak, hartzen baititu, alegia, honelako kasuak: terroristatzat jotzeko beharrezkoa ez denean banda armatu bateko kidea izatea edo horren barruan izatea, nahikoa delako delituzko ekintza jakin batzuk (giza hilketak, lesioak, suteak eta abar) egitea, konstituzio-ordena iraultze aldera edo bake publikoa larriki aldatze aldera (kontzeptu juridiko zehaztugabea da herritar-segurtasunarekin bat egiten duena, eta ekintza bortitzen edo erasoan, arrisku-egoera edo hondamendi-egoeren aurrean pertsonak eta ondasuna babestearekin lotua).

Azken buruan, eta aurreko egoeran ez bezala, terrorismoaren delituak mugatzean, lege honen ondorioetarako, egiturazko elementua edo organizazio bateko kidea izatekoa albo batera utz daiteke, eta, horrela, banakako zein taldeko ekintza batek, organizazio iraunkorretik at egonik ere, terrorismoaren biktimentzako laguntzen arauak aplikatzea ekar dezake, betiere «herritarren bakea eta segurtasuna» larriki astindu badu.

Jakina, kontzeptu juridiko zehaztugabe batek zedarritutako helburu huts batean oinarritutako definizioak behar bezain zehaztugabea irudi dezake, edo delitu guztiek herritarren segurtasunaren kontra atentatzen dutela ulertzera eraman dezake. Dena den, kasuan kasuko kontzeptu juridiko zehaztugabeen teknikak irtenbide bakarra ahalbidetu beharko du, eta, hori, azken buruan, epaitegiek berrikusi ahalko dute.

Aipatutako jurisprudenzia-doktrina eta -irizpidearekin bat etorrira, 2. artikuluko 1. paragrafoak legearen aplikazio-eremua mugatzen du, hain zuzen ere, izan daitezkeen izateko hipotesi desberdinak biltzeko behar bezain malguta den eremu bat, betiere ekintza terroristaren kasu guztiak hartu nahi dituen ikuspuntu publiko batetik abiatuta, ekintzok terroristatzat jotako taldekiekin eginak izan ala ez.

Lege honetan jasotako prestazioak eta laguntza-neurriak legeak berak kasuan kasu onuradun potentzialtzat jotzen dituen aplikatutako zaizkiela 2. artikulua 2. paragrafoan zehazten da. Eta hori horrela da, hobesten delako prestazio edo laguntza bakoitzaren esku uztea onuradunak zeintzuk diren zehaztea, izan ere askotarikoak izan daitezke, eta, gainera, kolektiboen sailkapenean ez sartzea, baizik eta kaltetutako bakoitzaren benetako premiei erantzutea, kontua ez baita pertsonen mailak pribilegiatzea, benetako premiei erantzutea baizik.

Bigarren artikuluko 3. paragrafoan araua aplikatzeko lurralde-eremua aipatzen da. Begi-bistakoa da autonomo-

programas de ayudas a las víctimas del terrorismo a tales supuestos, aun cuando no constara que detrás de los daños se encontrara una banda armada organizada de carácter terrorista.

Por su parte, el Código Penal de 1995 (reforzado por la reforma del año 2000) acarrea la novedad del artículo 577, que contempla, dentro del capítulo dedicado a los delitos de terrorismo, los casos de ejercicio de violencia política no organizada, también denominados en la doctrina «terrorismo individual», es decir, aquellos supuestos en los que no es preciso pertenecer o estar integrado en una banda armada, organización o grupo terrorista para ser calificado como terrorista, sino que es suficiente con cometer determinadas acciones delictivas (homicidio, lesiones, incendios, etcétera) con miras no sólo a subvertir el orden constitucional, sino también a alterar gravemente la paz pública (concepto jurídico indeterminado que coincide con el de seguridad ciudadana vinculado a la protección de personas y bienes frente a acciones violentas o agresiones, situaciones de peligro o calamidad).

En definitiva, y a diferencia de la situación precedente, en la delimitación de los delitos de terrorismo se puede prescindir, a efectos de esta ley, del elemento estructural o de pertenencia a una organización, de modo que un acto individual, o incluso grupal pero ajeno a una organización estable, que altere gravemente «la paz y seguridad ciudadana» puede dar lugar a la aplicación de las normas de ayudas a las víctimas del terrorismo.

Por supuesto, puede parecer suficientemente indefinida la delimitación del presupuesto casi con base exclusiva en una finalidad determinada por un concepto jurídico indeterminado, o considerarse que todos los delitos atentan contra la seguridad ciudadana. Sin embargo, en cada caso la técnica de los conceptos jurídicos indeterminados habrá de permitir una única solución, que podrá en última instancia ser revisada por los tribunales.

El artículo 2 en su apartado 1, acorde con la citada doctrina y criterio jurisprudencial, delimita un ámbito de aplicación de la ley lo suficientemente flexible para abarcar los distintos supuestos de hecho posibles siempre desde una óptica pública que pretende amparar todos los casos de acciones terroristas sean o no cometidas por personas integradas en grupos así calificados.

El artículo 2 en su apartado 2 puntualiza que los derechos y prestaciones recogidos en esta ley serán aplicables a quienes en cada caso la propia ley señala como potenciales beneficiarios. Y ello porque se considera mejor delegar a cada prestación o ayuda la determinación de sus beneficiarios, que pueden ser diversos, y además no entrar en categorías de colectivos sino atender a las necesidades reales de cada afectado, dado que no se trata de privilegiar categorías de personas, sino de atender necesidades reales.

El artículo 2 en su apartado 3 hace referencia al ámbito territorial de aplicación de la norma. Es obvio que

miaren eskumenen lurralde-muga Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldea dela, nahiz eta eskumenak gauzatzerakoan bere lurraldetik at ere izan ditzakeen zilegizko ondorioak.

Dena den, komenigarria izan daiteke zehaztea zein diren prestazioak onartzeko lurraldeari dagokionez bete beharreko baldintzak. Hala, prestazioak ematean eta gastu publikoa sustapen-jardueretan aplikatzean, onarpen horiek dakartzan izatezko kasuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-eremuaren (materiala eta lurraldekoa) arteko lotura bat egotera behartzen du horrek.

Hori horrela da administrazioek ez dutelako laguntzak emateko aginte orokorra, hau da, botere aske eta eskumen-boteretik deslotua, Konstituzio Auzitegiak adierazi duen bezala. Horrenbestez, autonomia-eskumenekiko lotura-irizpideren bat hartu behar da kontuan. Eta horrelakoak dira izaera politikoaren eta administrazio-egoitzaren irizpideak, onuradunen egoitzarena, eta, halaber, hedaduraz, Euskal Autonomia Erkidegoan izandako gertakizun baten biktima izatearena ere bai (biktima non bizi den alde batera utzita). Kasu horietan guztietan lotura bat dago Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen batzuekin: ongizateari, bertan bizi diren eskubideen sustapenari edo segurtasun publikoari buruzko zenbait eskumenekin ere.

Lege honen aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegotik at izandako gertakarietara zabaltzen da, baldin eta kaltetutakoen bizilekua Euskal Autonomia Erkidegoan badago. Era berean, diru-laguntzak lortzeko, biktimen elkarteek egoitza Euskadin izan behar dute, edo, bestela Euskal Autonomia Erkidegoan izandako ekintza terroristek sortutako kalteak nozitu dituzten bazkideak izan behar dituzte.

Eusko Legebiltzarra ohartu da terrorismoaren biktima batzuek ezin izango dituztela jaso lege honetan adierazitako neurriak biktimen aplikazio-eremutik kanpo geratzen direlako; horregatik agertzen du komeni dela lege honetan dagoen babes-mailaren antzekoa izango duten legegintza-neurriak onar ditzatela bai Estatuak bai oraindik horrelakorik onartu ez duten autonomia-erkidegoek.

Helburu hori aintzat hartuta, 2. artikuluko 4. paragrafoan ezartzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra Estatuako Administrazio orokorrekin eta gainerako autonomia-erkidegoekin koordinatuko dela lege honetako aplikazio-eremutik kanpo terrorismoaren biktimei aitorpena egiteko eta laguntza integrala emateko neurriak diseinatze eta abian jartze aldera.

II. tituluko edukari dagokionez, lehen egindako zehaztapenekin, badugu adieraztea bere artikuluetan arautzen direla Eusko Jaurlaritzak 2006ko maiatzean

la competencia autonómica tiene como límite territorial el territorio de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a salvo de posibles efectos extraterritoriales legítimos en el ejercicio de sus competencias.

Sin embargo, sí puede resultar conveniente precisar el presupuesto territorial requerido para el reconocimiento de prestaciones. Ello obliga, en la concesión de prestaciones y en la aplicación del gasto público en actividades de fomento, a que exista una conexión entre el presupuesto de hecho que motiva tales reconocimientos y el ámbito competencial (material y territorial) de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Ello es debido a que las administraciones no disponen de un poder general para conceder ayudas, entendido como poder libre y desvinculado del poder competencial, tal y como ha afirmado el Tribunal Constitucional. En consecuencia, debe considerarse algún criterio de conexión con las competencias autonómicas. Lo es el criterio de la condición política y vecindad administrativa, la residencia de los beneficiarios, e igualmente, por ampliación, el hecho de haber resultado víctima por un acto acaecido en territorio vasco, con independencia de su residencia. En todos estos casos existe una conexión con competencias vascas relativas al bienestar social, a la promoción de derechos de los residentes en la Comunidad Autónoma del País Vasco o incluso a la seguridad pública.

La presente ley extiende dicho ámbito de aplicación a hechos ocurridos fuera del País Vasco cuando el afectado o afectados estén domiciliados en la Comunidad Autónoma vasca. Igualmente, para acceder a subvenciones, las asociaciones de víctimas deben estar domiciliadas en Euskadi o tener miembros asociados que hubieran sufrido daños por acciones terroristas producidos en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El Parlamento Vasco, consciente de la existencia de víctimas del terrorismo que no podrán acogerse a las medidas previstas en la presente ley por quedar fuera de su ámbito de aplicación, hace constar la conveniencia de que tanto el Estado como las comunidades autónomas que aún no lo hayan hecho procedan a la aprobación de medidas legislativas que contemplen un nivel de protección similar al recogido en la presente ley.

Con este fin, el artículo 2 en su apartado 4 establece la coordinación de la Administración general de la Comunidad Autónoma del País Vasco con la Administración general del Estado y con el resto de las comunidades autónomas para el diseño e implementación de medidas de reconocimiento y de asistencia integral a las víctimas del terrorismo fuera del ámbito de aplicación de la presente ley.

Con las precisiones que respecto al contenido del título II se han realizado anteriormente, podemos señalar que, a lo largo de su articulado se normativizan, con el

3.- La Administración cubrirá la totalidad de los gastos generados por el implante de prótesis o mejoras periódicas de las mismas, así como los gastos derivados de la necesidad de rehabilitación, con independencia de si estuvieren o no incluidos dentro de los parámetros de protección sanitaria ordinaria.

Artículo 19.— Ámbito de la asistencia psicológica.

1.- La asistencia psicológica, incluida la psicosocial y la psicopedagógica, dirigida a superar los efectos de tal naturaleza derivados de la acción terrorista será dispensada a cualquier persona que acredite su necesidad mediante certificación en tal sentido expedida por facultativo público, pudiendo la persona interesada optar entre los medios públicos adscritos al sistema sanitario de Euskadi o los privados para el tratamiento psicológico prescrito.

2.- En caso de optar por la asistencia psicológica impartida por profesional privado, la Administración se hará cargo de su coste, mediante la concesión, previa al tratamiento, de una ayuda económica directa e íntegra a la persona interesada. Dicha ayuda será incompatible con la de la misma naturaleza que pudieran prestar, por las mismas causas, otras administraciones públicas.

3.- La ayuda económica se percibirá por trimestres vencidos, previa presentación de las facturas de los gastos y honorarios abonados, y no podrá sobrepasar la cantidad que se estipule reglamentariamente por tratamiento individualizado, sin perjuicio de que extraordinariamente pueda ampliarse la ayuda concedida a la vista de la evolución del diagnóstico médico.

4.- La Administración sanitaria propiciará la creación, dentro de la red de salud mental del sistema público de salud, de recursos especializados para el tratamiento psicológico en caso de acciones terroristas, así como de sus escuelas.

Artículo 20.— Ámbito de la enseñanza.

1.- Quienes hayan sufrido daños personales físicos o psicofísicos de singular gravedad, sus cónyuges o personas con las que convivan de forma permanente con análoga relación de afectividad, y sus hijos estarán exentos de todo tipo de tasas académicas en los centros oficiales de estudios de todos los niveles de enseñanza.

2.- La Administración podrá sufragar los gastos de los servicios académicos de estudios académicos no oficiales o de estudios académicos oficiales en centros privados de enseñanza elegidos por las personas referidas en el apartado 1, en los términos y con los límites que se fijen reglamentariamente.

3.- Así mismo, se concederán ayudas para el fomento del estudio a las mismas personas mencionadas en el apartado 1, como contribución a los pagos destinadas a fomentar el estudio, consistentes en la contribución a

materiala, garraioa, jantokia eta familiako etxetik kanpo hartu beharreko egoitza. Hezkuntza Administrazioak horretarako ezartzen duen urteroko deialdian xedatutakoa hartuko da kontuan, baina eskakizun ekonomikoak eta akademikoak malgutu egingo dira onuradunen premiak kontuan hartuta. Bereziki, laguntzak eta beka eskuratzeko, muga gisa ezarritako errenta-mailari indize zuzentzaileak aplikatuko zaizkio; beka eskuratzeko familiako errenta zenbatzerakoan kanpo utziko da ekintza terroristaren ondorioz jasotako kalte-ordainen zenbatekoa eta indize zuzentzaileak aplikatuko zaizkie ekintza terroristaren ondorengo eskolako lehenengo urteetan batez besteko kalifikazioei dagozkien eskakizun akademikoiei.

4.- Hezkuntza-administrazioek programa bereziak ezarriko dituzte terrorismoaren biktima diren ikasleek, ikasketak egoki buru ditzaten, beharrezko eta bakoitzari egokitutako arreta eta laguntza jasotzeko.

21. artikulua.– Prestakuntzaren eremua.

1.- Kalte fisiko edo psikofisiko bereziki larriak nozitu dituzten pertsonak, horien ezkontideek edo horiekin modu iraunkorrean eta antzeko lotura afektiboekin bizi diren pertsonak eta seme-alabek eskubidea izango dute Administrazioak antolatzen eta/edo finantzatzen dituen lanbide-heziketako eta lan-jarduerako ekimen eta jardunetan parte hartzeko, lan-merkatura sartzeko eta lanean hasteko erraztasunak izan ditzaten.

2.- Horretarako, onuradunek birziklatzeko, ezaguerak eta gaitasunak eskuratzeko eta bestelako ikastaro guztiak egin ditzaten sustatuko du Administrazioak, aurreko paragrafoan aipatutako xederako. Ikastaro horiek doan izango dituztela bermatuko du Administrazioak.

22. artikulua.– Etxebizitzaren eremua.

Ekintza terrorista batetik zuzenean edo zeharka erortzen diren etxebizitzaren premia bereziak kontuan hartuko ditu Administrazioak, eta hauetarako aukera ematen duten bitartekoak erregelamenduz garatuko ditu:

a) Ekintza terrorista baten ondorioz ezintasunen bat duten pertsonentzat ohiko etxebizitza egokitzeko, hori bada komeni dena. Horretarako erregelamendu bidez ezarriko dira egokitzapen-gastuei aurre egiteko diru-laguntzak.

b) Babes ofizialeko etxebizitzak trukatzeko edo, hala egokituz gero, kalifikazio hori kentzeko, terrorismoaren eragina nozitu izanagatik, ez bestelako arrazoiengatik, etxebizitza aldatzeko justifikazioa duten pertsonentzat.

c) Babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko sisteman lehentasunez sartzeko aukera edo baldintza orokorrak bete behar ez izatea ahalbidetzen duten bitartekoak

los pagos destinados a servicios no académicos, como material escolar, transporte, comedor y residencia fuera del domicilio familiar, atendiendo a lo dispuesto en las convocatorias anuales que al efecto establezca la Administración educativa, si bien se relajarán los requisitos económicos y académicos exigibles atendiendo a las necesidades de los beneficiarios. En particular, se aplicarán índices correctores respecto del nivel de renta establecido como límite de acceso a las ayudas y becas, se excluirá en el cómputo de la renta familiar como límite de acceso a las becas la cuantía de las indemnizaciones recibidas como consecuencia del acto terrorista y se aplicarán índices correctores respecto a la exigencia de requisitos académicos referidos a calificaciones medias durante los primeros años escolares a partir del acto terrorista.

4.- Las administraciones educativas establecerán programas específicos para que los alumnos y alumnas víctimas del terrorismo puedan recibir la atención y apoyo personalizado necesario para realizar adecuadamente sus estudios.

Artículo 21.– Ámbito de la formación.

1.- Quienes hayan sufrido daños personales físicos o psicofísicos de singular gravedad, sus cónyuges o personas con las que convivan de forma permanente con análoga relación de afectividad, y sus hijos tendrán derecho a participar en cuantas iniciativas y actividades de formación profesional y laboral se organicen y/o se financien por la Administración en orden a facilitar su acceso al mercado de trabajo y su integración laboral.

2.- A tal efecto, la Administración promoverá la incorporación de los beneficiarios a cuantos cursos de reciclaje, adquisición de conocimientos y competencias y otros análogos pudieran llevarse a efecto con la finalidad señalada en el apartado anterior, garantizando la gratuidad de los mismos.

Artículo 22.– Ámbito de la vivienda.

La Administración atenderá las especiales necesidades de vivienda derivadas de manera directa o indirecta de una acción terrorista, desarrollando reglamentariamente los mecanismos que permitan:

a) La adaptación de la vivienda habitual a personas que a consecuencia de una acción terrorista resulten con un grado de incapacidad que la haga aconsejable. Para ello, reglamentariamente se instaurarán subvenciones para afrontar los gastos de adaptación.

b) La permuta o, en su caso, la descalificación de viviendas de protección pública a las personas que precisen justificadamente un cambio de domicilio motivado exclusivamente por circunstancias que tengan que ver con su condición de afectadas por el terrorismo.

c) La introducción en el sistema de adjudicación de viviendas de protección pública, tanto en régimen de compraventa como de alquiler o cesión del derecho de

sartzeko, bai salerosteko, bai alokatzeko edo azalera-eskubidean lagatzeko ere.

23. artikulua.– Enpleguaren eremua.

1.– Ekintza terroristaren baten ondorioz laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonen lan-kontratazioa sustatuko du Administrazioak, eta horretarako laguntza ekonomikoen lerro espezifiko bat sortuko du; halaber, pertsona horien enplegua enpresen gizarte-erantzukizunaren esparruan sartzea ere bultzatuko du.

2.– Euskal administrazio publikoek bereizketa positiborako neurriak bideratuko dituzte terrorismoaren biktimek enplegu publikoa lortze aldera, langile publikoen estatutu-erregimenaren oinarriek ezarritakoaren arabera eta adierazitako kasuetan.

24. artikulua.– Funtzio publikoa.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko ekainaren 6ko 6/1989 Legearen 2.1 artikuluan zehaztutako eremuan sartzen diren langileek, baita irakasleek eta lotura estatutarioa duten osasun-langileek ere, ekintza terroristaren baten ondorioz kalte fisiko edo psikofisiko bereziki larriak nozitu badituzte, euren baldintzak eta gorabeherak kontuan hartuta horretarako premia dutela arrazoitzen dutenean, eskubide hauek izango dituzte:

a) Beraien kidego, eskala edo lan-kategorian antzeko ezaugarriak dituen beste lanpostu batera aldatzeko eskubidea, lanpostu hutsa nahitaez betetzeko beharra izan gabe, beren burua benetan babesteko edo asistentzia jaso ahal izateko lehen zerbitzuak ematen zituzten herrian lanpostua utzi beharrean suertatzen badira. Lanpostu aldatze horrek derrigorrezko lekualdatzea izango da.

b) Eszedentzia, beren burua benetan babesteko edo asistentzia jaso ahal izateko, gutxieneko epe batean lanean aritu beharrik izan gabe eta eszedentzian egoteko eperik eskatu gabe. Lehenengo sei hilabeteetan eskubidea izango dute lehen betetzen zuten lanpostua gordetzeko eta epe hori konputagarria izango da antzinasunerako, karrerarako eta aplikagarriak zaizkien Gizarte Segurantzako erregimeneko eskubideetarako. Lanpostua gordetze hori luzatu ahal izango da hiru hilabete epeka eta gehienez ere hemezortzi hilabeteetarako. Eszedentzian egondako lehenengo bi hilabeteetan ordainsari osoa jasotzeko eskubidea izango dute.

c) Justifikatuztat joko da lanera ez joatea, guztizkoa edo partziala izan, arreta emateko gizarte-zerbitzuek edo osasun-zerbitzuek, kasuan kasuko egoeraren arabera, hala zehazten badute eta ezartzen dituzten baldintzetan.

d) Lanaldia murrizteko eskubidea, ordainsaria ere proportzioan murriztuta, edo laneko denbora berrantolatze eskubidea, ordutegia egokituz, ordutegi malgua aplikatuz edo laneko denbora antolatze eskubideak

superficie, de mecanismos que reflejen condiciones de prioridad o exención de requisitos previstos con carácter general.

Artículo 23.– Ámbito del empleo.

1.– La Administración fomentará la contratación laboral de aquellas personas que tengan dificultades de inserción laboral como consecuencia de un acto terrorista creando una línea específica de ayudas económicas, y promoverá igualmente la inclusión en el ámbito de la responsabilidad social corporativa de las empresas el empleo de estas personas.

2.– Las administraciones públicas vascas arbitrarán medidas de discriminación positiva en el acceso al empleo público para las personas víctimas del terrorismo, en los supuestos y de conformidad con lo que establezcan las bases del régimen estatutario de los empleados públicos.

Artículo 24.– Función Pública.

El personal incluido en el ámbito definido en el artículo 2.1 de la Ley 6/1989, de 6 de junio, de Función Pública Vasca, además del personal docente y el personal estatutario sanitario que resulte ser víctima de daños personales físicos o psicofísicos de singular gravedad derivados de acciones terroristas, tendrá, cuando se acredite motivadamente la necesidad, en consideración a su condición y circunstancias particulares, los siguientes derechos:

a) El derecho al traslado a otro puesto de trabajo propio de su cuerpo, escala o categoría profesional, de análogas características, sin necesidad de que sea vacante de necesaria cobertura, cuando para hacer efectiva su protección o para recibir asistencia se vea obligado a abandonar el puesto de trabajo en la localidad donde venía prestando sus servicios. Este traslado tendrá la consideración de traslado forzoso.

b) La excedencia, para hacer efectiva su protección o recibir asistencia, sin tener que haber prestado un tiempo mínimo de servicios previos y sin que sea exigible plazo de permanencia en la misma. Durante los seis primeros meses tendrá derecho a la reserva del puesto de trabajo que desempeñara, siendo computable dicho período a efectos de antigüedad, carrera y derechos del régimen de la Seguridad Social que le sean de aplicación. Dicha reserva podrá ser prorrogada por períodos de tres meses, con un máximo de dieciocho. Durante los dos primeros meses de esta excedencia tendrá derecho a percibir las retribuciones íntegras.

c) La consideración de justificadas de las faltas de asistencia, totales o parciales, cuando tuviera que ausentarse de su puesto de trabajo en las condiciones en que así lo determinen los servicios sociales de atención o salud, según proceda.

d) El derecho a la reducción de la jornada con disminución proporcional de la retribución, o la reordenación del tiempo de trabajo, a través de la adaptación del horario, de la aplicación del horario flexible o de

izan daitezkeen bestelako moduak ezarriz, administrazio publiko eskudunak kasu bakoitzean ezartzen duenaren arabera.

IV. KAPITULUA ANTOLAKUNTZA ETA PROZEDURA

25. artikulua.– Organo eskudunak.

1.– Erregelamendu bidez zehaztuko da lege honetan araututako erreparazio- eta laguntza-prestazioak eskuratzeko eskabideak koordinatzeko, eta, hala badagokio, izapidetzeko eta ebazteko Euskal Autonomia Erkidegoko organo eskuduna. Organo horrek eskumen hauek izango ditu:

a) Jendaurrean biktimei gizartearen elkartasuna agertzea eta aitorpena egitea sustatzea, helburu horretarako egokien diren jarduera eta ekimen instituzionalen bitartez, eta askatasunei eta giza eskubideei zor zaien errespetuaren eta bakearen aldeko kultura zabalduz.

b) Biktimei banan-banan eta zuzenean arreta ematea, kasu bakoitzean zerbitzu publikoetatik behar ditzaketen mota guztietako premiak ezagutu ahal izateko.

c) Jendeari jakinaraztea, eta bereziki biktimei, zein eskubide eta baliabide dituzten, eta eskura ditzaketen zerbitzu guztiak: juridikoak, medikoak, psikologikoak, sozialak, administratiboak eta mota guztietakoak.

d) Lege honetan araututako erreparazio- eta laguntza-prestazioak eskuratzeko eskabideak izapidetzea, eta, hala badagokio, ebaztea, erregelamendu bidez hala agintzen zaionean.

e) Lege honetan aurreikusitako eta erregelamendu bidez zehaztutako beste prestazio batzuk emateko prozedurei buruz nahitaezko txostenak ematea. Txosten horiek lotesleak izan daitezke, aldi berean biktima edo prestazioen onuraduna biltzen direnean, erregelamendu bidez horrela aurreikusten bada.

f) Lege honetan aurreikusitako prestazioak emateari buruzko informazioa ematea, organo eskudunek hala eskatzen dutenean, aipatu esku-hartzea nahitaezkoa ez den kasuetan ebazteko.

g) Terrorismoaren biktimek beren eskubideak erabil ditzaten bilatzen duten ekimenak eta jarduerak babestea eta bultzatzea.

h) Terrorismoaren biktimek erakundeekin eta administrazio publikoekin dituzten harremanak erraztera bideratutako jarduerak sustatzea, laguntza eta prestazio publikoak eskuratzeko informazio eta laguntza tekniko eta legala emanez.

i) Lankidetzaren eta informazio-harremanak edukitzea Euskal Autonomia Erkidegoko organoekin, baita beste erakunde batzuekin ere, eskumeneko eremu bakoitzetik

otras formas de ordenación del tiempo de trabajo que sean aplicables, en los términos que para estos supuestos establezca la administración pública competente en cada caso.

CAPÍTULO IV ORGANIZACIÓN Y PROCEDIMIENTO

Artículo 25.– Órganos competentes.

1.– Reglamentariamente se determinará el órgano de la Administración general de la Comunidad Autónoma competente para coordinar y, en su caso, tramitar y resolver las solicitudes de las prestaciones reparadoras y asistenciales reguladas en la presente ley. Dicho órgano tendrá entre sus atribuciones las siguientes:

a) Promover la solidaridad con las víctimas y su reconocimiento público y social mediante las iniciativas y actuaciones institucionales que resulten más convenientes a tal fin, extendiendo la cultura a favor de la paz y el respeto a los derechos humanos y las libertades.

b) Atender de forma directa e individualizada a las víctimas, a fin de conocer en cada caso las necesidades de cualquier orden que puedan requerir de los servicios públicos.

c) Informar al público en general, y en particular a las víctimas, de los derechos y recursos que les asisten, así como de todos los servicios jurídicos, médicos, psicológicos, sociales, administrativos y de toda índole a los que las víctimas pudieran tener derecho.

d) Tramitar, y en su caso, resolver, las solicitudes de prestaciones reparadoras y asistenciales reguladas en la presente ley, cuando así se le atribuya reglamentariamente.

e) Emitir informe preceptivo en los procedimientos de concesión de otras prestaciones contempladas en esta ley que se determinen reglamentariamente. Dichos informes podrán resultar vinculantes respecto a la concurrencia de la condición de víctima o beneficiario de las prestaciones cuando así se prevea reglamentariamente.

f) Informar sobre la concesión de prestaciones contempladas en esta ley, cuando así lo soliciten los órganos competentes para su resolución en los supuestos en que tal intervención no sea preceptiva.

g) Apoyar e impulsar aquellas iniciativas y actividades tendentes a promover el ejercicio de derechos por parte de las víctimas del terrorismo.

h) Impulsar aquellas actuaciones tendentes a facilitar las relaciones de las víctimas del terrorismo con las instituciones y administraciones públicas, facilitándoles la información y el apoyo técnico y legal preciso sobre procedimientos para solicitar ayudas y prestaciones públicas.

i) Mantener relaciones de colaboración e información con los diferentes órganos de la Administración general de la Comunidad Autónoma, así como con otras

biktimei laguntza integrala eta egokia eman ahal izateko.

j) Oinarrizko helburutzat biktimei giza laguntza eta laguntza psikologikoa ematea duten gizarte-mugimendu, fundazio eta elkarteekiko lankidetzaharremanak sustatzea.

k) Beste erakunde, entitate eta administrazio publikoekin harremanak izateko etengabeko bideak ezartzea, terrorismoaren biktimei beharrezko arreta eman dakien ziurtatzeko.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorrak emango ditu asistentzia-izaerako prestazioak eta laguntzak, berak zuzenean edo erakunde edo organizazio publiko edo pribatuen bitartez.

26. artikulua.– Prozedura.

1.– Erreparazio- eta laguntza-prestazioak emateko prozeduran, prestazioak lege honetan sortuak izan edo beste prozedura sektorial espezifiko batzuetako eskakizunen modulazioak izan, hainbat printzipio hartuko dira kontuan:

a) Biktimekin tratatzerakoan kontuan izango da haiek izan dezaketen ahultasun- edo desberdintasun-egoera berezia.

b) Azkartasuna eta biktimaren aldeko tratua izango dira prozedurak bideratzeko eta ebazteko printzipioak; ekidin egingo zaizkio biktimari laguntzak edo prestazioak aitortzea luzatzen edo oztopatzen duten izapide formalak. Hori dela eta, interesdunari ez zaio eskatuko agiririk aurkeztea begi-bistako gertakariak edo gorabeherak frogatzeko, jardunean ari den administrazioaren artxiboetan edo aurrekarietan baldin badaude.

c) Gaia dela eta, biktimei laguntzeko organo eskuduna ez den beste sail bati badagokio administrazio-egintza onestea, administrazio-egintza hori onestekotan nahitaezko txostena beharko da biktimei laguntzeko organo eskudunak proposaturik.

2.– Lege honetan aurreikusten diren erreparazio- eta laguntza-prestazioak emateko prozeduretan:

a) Biktimekiko harremanak eta eskabideak aurkeztea biktimei laguntzeko organora bideratzeko ahalegina egingo da, edozein izanda ere eskatu nahi den laguntza mota eta eskatutako prestazioa egikaritu behar duena.

b) Biktimei laguntzeko organo eskudunak, espediente izapidetu edo ebazten duena bada, Administrazio-oko organoen eta eraginpeko organizazioen lankidetzaz izango du.

c) Beste administrazio batzuei edo justizia-auzitegiei eskatu ahal izango zaizkie espedienteak izapidetzeko beharrezkoak izan daitezkeen aurrekariak, datuak edo txostenak, betiere Datu Pertsonalak Babesteko abendu-

instituciones, a fin de prestar desde cada ámbito competencial una ayuda integral y adecuada a las víctimas.

j) Potenciar las relaciones de colaboración con aquellas asociaciones, fundaciones y movimientos sociales entre cuyos objetivos básicos se encuentre el apoyo humano y psicosocial a la víctima.

k) Establecer cauces permanentes de relación con otras instituciones, entidades y administraciones públicas, a fin de garantizar la debida atención a las víctimas del terrorismo.

2.– Las prestaciones y ayudas de carácter asistencial se prestarán por la Administración general de la Comunidad Autónoma de Euskadi, por sí misma o por medio de otras instituciones u organizaciones, públicas o privadas.

Artículo 26.– Procedimiento.

1.– La tramitación de los procedimientos para la concesión de las prestaciones reparadoras y asistenciales, ya sean creadas por esta ley o bien supongan modulaciones de requisitos previstos en otros procedimientos sectoriales específicos, atenderá a los siguientes principios:

a) En el trato con las víctimas se tendrá en cuenta la especial situación de vulnerabilidad y desigualdad en que puedan encontrarse.

b) La instrucción y resolución de los procedimientos estará presidida por los principios de celeridad y trato favorable a la víctima, evitando trámites formales que alarguen o dificulten el reconocimiento de las ayudas o prestaciones. En este sentido, no se requerirá aportación documental al interesado para probar hechos notorios o circunstancias cuya acreditación conste en los archivos o antecedentes de la administración actuante.

c) En el supuesto de que la aprobación del acto administrativo sea competencia por razón de la materia de otro departamento diferente del órgano competente en asistencia a las víctimas, la aprobación del mismo requerirá informe preceptivo a propuesta de este último.

2.– En los procedimientos para la concesión de prestaciones reparadoras y asistenciales previstos específicamente en esta ley:

a) Se procurará centralizar las relaciones con las víctimas y la presentación de solicitudes en el órgano competente en asistencia a las víctimas, con independencia de las distintas modalidades de ayudas que se pretendan solicitar y de quienes deban ejecutar la prestación recabada.

b) El órgano competente en asistencia a las víctimas, cuando resulte ser quien instruya o resuelva el expediente, contará con la colaboración de los órganos de la Administración y organizaciones afectadas.

c) Podrán recabarse de otras administraciones o de los tribunales de justicia los antecedentes, datos o informes que resulten necesarios para la tramitación de los expedientes, siempre dentro de los límites fijados por la

aren 13ko 15/1999 Lege Organikoak eta Justizia Administrazioak ezartzen dituzten mugen barruan.

d) Ebazpenak emateko eta jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da, non eta arrazoitutako inguruabar guztiz bereziengatik ez den epe hori zabaltzea erabakitzen, gehienez ere hiru hilabetez. Nolanahi ere, eskabideak ibilgailuetan eta beste ondasun batzuetan segurtasun-elementuak instalatzeko badira, epea bi hilabetekoa izango da, eta ezin luzatuzkoa.

e) Gehienezko epea pasa ondoren, ebazpenik eman eta jakinarazi ez bada, ebazpena baiestekoa dela ulertu behar da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43. artikuluan aurreikusitako eraginetarako.

3.- Baldin eta erreparazio- eta laguntza-prestazioak ematea beste prozedura sektorial espezifiko batzuetan aurreikusitako eskakizunen modulazioak egitea bada, dagokion legedi sektorialean araututako prozedurari jarraitu beharko zaio, lege honetako 25.1 artikuluko e) idatz-zatian xedatutakoari kalte egin gabe.

IV. TITULUA

ELKARTEEN JARDUERAK SUSTATZEA

27. artikulua.– Ekintzak sustatzea.

1.– Eusko Jaurlaritzak izaera osagarria duten jarduerak bultzatuko eta sustatuko ditu, ordaina jasotzeko eta laguntzeko lege honetan ezarritako xedea hobeto bete ahal izateko komenigarriak edo beharrezkoak badira.

2.– Sustapen-politika horren helburua elkarteek eta erakundeek sustatutako egitarauak eta jarduerak bultzatzea izango da, egitarau eta jarduera horien xedea honako hau denean: batetik, biktimei arreta eta giza laguntza ematea, lagunekin eta familiakoekin batera epaiketetara laguntzea, terrorismoaren biktimei orientazio edo laguntza psikosoziala ematea; edo, bestetik, gai honi buruzko foroak, ikastaroak eta mintegiak egitea eta hezkuntzara edo balio etiko eta demokratikoen sustapenera bideratutako bestelako jarduera eta proiektuak lantzea.

3.– Aipatutako laguntzen onuradun izendatzen dira ohiko jarduera terrorismoaren biktimen eremuan gauzatzen duten erakundeak eta elkarteak, elkartearen egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan baldin badute, bai eta eremu geografiko horretatik kanpo egon arren, beren kideen artean ekintza terroristak Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldearen barruan nozitu dituzten herritarrak dituztela behar bezala egiaztatzen duten elkarteak eta biktimen kolektiboak ere.

Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal, y los que establezca la Administración de Justicia.

d) El plazo para dictar y notificar las resoluciones será de seis meses, salvo que, por circunstancias excepcionales justificadas, se acuerde su ampliación, que no podrá ser superior a otros tres meses. No obstante, en los casos de solicitud de ayudas para instalación de elementos de seguridad en vehículos y otros bienes muebles, por razón de urgencia, el plazo será de dos meses e improrrogable.

e) Transcurrido el plazo máximo sin haber recaído y sido notificada la resolución, ésta se entenderá estimatoria, a los efectos previstos en el artículo 43 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

3.- La concesión de las prestaciones reparadoras y asistenciales que supongan modulaciones de requisitos previstos en otros procedimientos sectoriales específicos se registrará por el procedimiento que se regule en la legislación sectorial correspondiente, sin perjuicio de la previsión de la letra e) del artículo 25.1 de esta ley.

TÍTULO IV

IMPULSO A LAS ACTIVIDADES DEL MOVIMIENTO ASOCIATIVO

Artículo 27.– Fomento de acciones.

1.– El Gobierno Vasco impulsará y fomentará aquellas actuaciones de naturaleza complementaria que resulten convenientes o necesarias para el mejor cumplimiento de los fines de reparación y asistencia establecidos en esta ley.

2.– Esta política de fomento tendrá como objetivo el impulso de programas y actividades promovidos por asociaciones y organizaciones, cuya finalidad sea, por un lado, la atención, el apoyo humano, los acompañamientos a víctimas con familiares y amigos a juicios, la orientación o la asistencia psicosocial a las víctimas del terrorismo o bien, por otro, la realización de foros, cursos, seminarios sobre esta materia y otras actuaciones y proyectos de naturaleza educativa o de promoción de valores éticos y democráticos.

3.– Se establecen como beneficiarios de las ayudas mencionadas organizaciones y asociaciones que desempeñen su actividad habitual en el ámbito de las víctimas del terrorismo y que tengan su domicilio social en la Comunidad Autónoma vasca, así como aquellas asociaciones o colectivos de víctimas que, aun estando ubicadas fuera del mencionado ámbito geográfico, acrediten debidamente incluir entre sus miembros asociados a ciudadanos o ciudadanas que hayan sufrido acciones terroristas dentro del territorio de la Comunidad Autónoma vasca.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.– Aparteko laguntzak.

Gobernu Kontseiluak aparteko laguntzak eman ahal izango ditu, salbuespen modura, ohiko laguntzek estaltzen ez dituzten edo behar baino nabarmen gutxiago estaltzen dituzten biktimen premiazko egoerak arintzeko, norbanakoarenak nahiz familiakoak izan.

Bigarrena.– Justifikatu beharreko ordainketak.

Behar-beharrezko premia izanez gero aurrerakinak eman ahal izango dira, lege honetan aurreikusitako ohiko laguntzen edo aparteko laguntzen kontura; laguntza horien zenbatekoa ez da izango dagokien ebazpena izan baino lehen aurreikus litekeen zenbatekoaren % 70 baino gehiagokoa. Aurrerakin horiek justifikatu beharreko ordainketa gisa jaulki ahal izango dira.

Hirugarrena.– Berehala jarduteko protokoloa.

Lege honetako 25. artikuluan aipatzen den organo eskudunak berehala jarduteko protokoloa eratuko du atentatu terroristak gertatzen direnerako. Protokolo horretan jaso beharko dira nola laguntza psikologikoa hala orientazioa eta argibideak, lege honetan adierazitako eskubideei eta onurei buruzkoak eta ekintza terroristen eragineko direnei onuraren bat ematen dieten araueri buruzkoak.

Laugarrena.– Pentsioen bateragarritasuna.

Terrorismo-egintzen ondoriozko aparteko pentsioen onuradunen kasuan, xedatzen da lege hau indarrean sartzen denetik, Jaurilaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 38. artikuluko 6. paragrafoan adierazitakoaren ondorioetarako, ez dela kontuan hartuko aparteko pentsio horretatik egokitu ahal zaien zatia.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.– Kaltea eragin zuen egintzaren data edozein dela ere eman ahal izango dira lege honetako II. kapituluko III. tituluari jasotzen diren laguntzak eta prestazioak, betiere lege honetako arauekin bat etorritak.

Bigarrena.– Lege hau indarrean sartzen den egunean izapidean diren kalte materialak ordaintzeko prozedurak kaltea eragin den unean indarrean zeuden prozedura-arauei jarraituz osatuko dira.

Hirugarrena.– Erregelamendu bidez aurreikusiko da aparteko epea irekitzea, sei hilabetekoa izango dena, kalte materialak erreparatzeko laguntzak jasotzerik izan ez zutenek, eskabidea formalizatu gabe urtebete igaro zelako, ekintza terrorista gertatu zen unean terrorismoaren biktimei laguntzeko indarrean zegoen programan sartzeko eskatu ahal izateko.

Laugarrena.– Erregelamendu bidez zehaztuta gertatzen den arte zer organok duen eskumena lege honetan

DISPOSICIONES ADICIONALES

Primera.– Ayudas extraordinarias.

Podrán concederse por el Consejo de Gobierno ayudas extraordinarias para paliar, con carácter excepcional, situaciones de necesidad personal o familiar de las víctimas, no cubiertas o cubiertas de forma notoriamente insuficiente por las ayudas ordinarias.

Segunda.– Pagos a justificar.

En supuestos de perentoria necesidad podrán concederse anticipos a cuenta de las ayudas ordinarias o extraordinarias previstas en esta ley, cuya cuantía no excederá el 70% de la cantidad que previsiblemente pudiera corresponder en la resolución que acuerde su concesión. Tales anticipos podrán librarse como pagos a justificar.

Tercera.– Protocolo de actuación inmediata.

El órgano competente a que hace referencia el artículo 25 de la presente ley elaborará un protocolo de actuación inmediata para casos de nuevos atentados terroristas. Dicho protocolo habrá de contemplar tanto la asistencia psicológica como la información y orientación en relación con los derechos y beneficios establecidos en la presente ley y con aquellas otras normas que concedan algún tipo de beneficio a los afectados por las acciones terroristas.

Cuarta.– Compatibilidad de pensiones.

A partir de la entrada en vigor de la presente ley, se establece que, en el caso de los beneficiarios de las pensiones extraordinarias motivadas por actos de terrorismo, a efectos de lo dispuesto en el apartado 6 del artículo 38 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, no se computará la parte de dicha pensión de carácter extraordinario que pudiera corresponderles.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera.– Las ayudas y prestaciones asistenciales contenidas en el capítulo II del título III de esta ley podrán ser concedidas, conforme a las normas de esta ley, cualquiera que fuese la fecha del acto lesivo causante del daño.

Segunda.– Los procedimientos de resarcimiento de daños materiales que se encuentren en tramitación en la fecha de entrada en vigor de la ley, se completarán de acuerdo con las normas procedimentales vigentes en el momento de producción del daño.

Tercera.– Reglamentariamente se preverá la apertura de un plazo extraordinario de seis meses durante el cual podrán solicitar acogerse al programa de ayudas a las víctimas del terrorismo vigente en el momento de la acción terrorista, quienes, por el transcurso del plazo de un año sin formalizar su solicitud, no pudieron acogerse a las ayudas para la reparación de daños materiales.

Cuarta.– Hasta que no quede determinado reglamentariamente el órgano competente para coordinar

arautzen diren erreparazio- eta laguntza-prestazioak jasotzeko eskabideak koordinatzeko eta, hala badagokio, horiek tramitatu eta ebazteko, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza izango da organo hori.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen dira lege honetan ezarritakoren aurkako xedapen guztiak.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.— Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean sartuko da indarrean, salbu eta III. tituluan ezarritakoa, titulu hori garatzen duten erregelamendu-arauak argitaratu eta gero indarrean sartuko baita.

Bigarrena.— Gobernuak lege honen edukiak aplikatzeko eta garatzeko beharrezko diren xedapen guztiak emango ditu, lege hau argitaratzen denetik sei hilabeteko epean eta Eusko Legebiltzarreko Biktimen Lantalde Iraunkorrari horien berri eman eta gero. Erregelamendu bidezko garapena argitaratu arte Terrorismoaren Biktimentzako Laguntzen Programa arautzen duen 214/2002 Dekretuan (abenduairen 30eko 313/2002 Dekretuak aldatua) aurreikusitakoa egongo da indarrean.

Hirugarrena.— Eusko Jaurlaritzak, lege hau onesten denetik hasi eta sei hilabeteko epean, lege honetan jasotako aginduen ondorioz Euskal Funtzio Publikoari buruzko ekainaren 6ko 6/1989 Legean egin beharreko aldaketak aurkeztuko ditu.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiak.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko ekainaren 23a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

y, en su caso, tramitar y resolver las solicitudes de las prestaciones reparadoras y asistenciales reguladas en la presente ley, éste lo será la Dirección de Atención a las Víctimas del Terrorismo.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones se opongan a lo establecido en la presente ley.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.— La presente ley entrará en vigor el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, a excepción de lo dispuesto en su título III, que entrará en vigor una vez se publiquen las normas reglamentarias que lo desarrollen.

Segunda.— El Gobierno dictará en el plazo de seis meses a partir de la publicación de esta ley, y previa información a la Ponencia Permanente de Víctimas del Terrorismo del Parlamento Vasco, cuantas disposiciones reglamentarias sean necesarias para la aplicación y el desarrollo de los contenidos de la presente ley. Hasta la publicación del desarrollo reglamentario se mantendrá en vigor lo previsto en el Decreto 214/2002, de 24 de septiembre (modificado por el Decreto 313/2002, de 30 de diciembre), por el que se regula el Programa de Ayudas a las Víctimas del Terrorismo.

Tercera.— El Gobierno Vasco presentará, en el plazo de seis meses desde la aprobación de esta Ley, las modificaciones necesarias a la Ley 6/1989, de 6 de junio, de Función Pública Vasca, derivadas de los preceptos recogidos en la presente Ley.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos y ciudadanas de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de junio de 2008.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.